



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2015/2016 Denboraldia

## 14ZK.DUN ZIRKULARRA

### ARETO FUTBOLEKO EUSKAL GAZTE KOPA

Oraingo denboraldiko Lehiaketa Planak ezarritakoarekin bat, Euskadiko Futbol Federakundeak honako lehiaketa antolatuko du, ondorengo araei jarraiki :

#### 1.- PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

Nazional Gazte mailako hurrengo lau taldeek hartuko dute parte:

Bilbo C.F.S,  
Laskorain K.E.  
Lauburu Ibarra K.E.  
Zierbena F.S.

#### 2.- LEHIAKETA SISTEMA

Fase bitan egingo da: Aurrekoa eta Finala.

##### Aurreko Fasea (Apirilak 16 eta 23)

Zozketaren bidez bikoteka elkartuko dira parte hartzaileak, partiden ordena eta bikoteak ezarriz.

##### Finala

Aurreko Faseko bi irabazleen artean ospatuko da, apirilaren 30ean, Areto Futboleko Eusko Batzordean izendatutako instalazioan.

#### 3. ZOZKETA

Martxoak 17 izan zen Euskadiko Futbol Federakundeko egoitzan 19.00tan, hurrengo emaitzarekin.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

## **JOAN**

Laskorain K.E – Lauburu Ibarra K.E.  
Zierbena F.S. – Bilbo C.F.S.

## **ETORRIA**

Lauburu Ibarra K.E. – Laskorain K.E.  
Bilbo C.F.S. – Zierbena F.S.

## **4.- JOKALARIEN ZELAIRAKETA ETA ORDEZKAKETA**

Parte hartzen duen mailako taldeak osatzen duen lehenengo taldeko gutxienez hiru jokalaria parte hartu behar dute partidaren iharduera osoan zehar.

## **5.- BERDINKETAK**

Aldi baterako berdinketak EFF-FVFko Arautegi Nagusiak ezartzen duen moduan ebatziko dira.

Fase guztietan, amaierako partiduan izan ezik, berdinketaren kasuan ez da ezarritako luzapena ospatuko eta zuzenean penalti gunetik jaurtiketak egiteari ekingo zaio.


Azkeneko partiduan berdinketarekin amaitzen denean, hamar minutuko luzapena ospatuko da, bost minutuko bi denborekin atsedenaldirik gabe, jokoremia hautatzeko zozketa eginez. Luzapena amaitutakoan berdintasuna ebatziko ez balitz, penalti gunetik jaurtiketa batzuek egiteari ekingo litzaioke.

## **6.- EPAILEAK**

Partidak zuzenduko dituzten epaileen izendapena, Areto Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoak egingo du.

Areto Futboleko Batzordeak partiden Ordainagiriaren ordainketaz kargutuko da.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

## **7.- PARTIDEN ORDUTEGIAK**

Ordutegia partida jokatu baino astebete lehenago jakinaraziko diote klubek Euskadiko Futbol Federakundeari, (Fax 94-473.22.21 p.e. [futbolsala@eff-fvf.eus](mailto:futbolsala@eff-fvf.eus) edo EFF-FVF web gunean ) 11. Zirkularrak ezartzen duen moduan.

## **8.- GARAIKURRA**

Euskadiko Futbol Federakundearen Kopa, talde irabazlearentzat.  
Hamabost dolumina talde irabazlearentzat eta irabazle ordearentzat.

## **8.- DIZIPLINA BATZORDEA**

Partidak amaituta, euskal federazioari helaraziko zaizkio arbitroen aktak (p.e. [futbolsala@eff-fvf.eus](mailto:futbolsala@eff-fvf.eus) Fax 944732221), Diziplina Batzordeak epaia plazara eta helaraz dezan, halakorik behar izanez gero.

Eta horren berri ematen diegu parte hartuko duten taldeei, lurraldeetako federazioei eta Areto Futboleko Epaileen Euskal Batzorde Teknikoari, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2016eko martxoaren 23ean

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General